

2015EKO AZAROAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamabosta.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2015eko urriaren 29ko akta onartzea.

2015eko urriaren 29ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

**2.- BERDINTASUN ETA PARTE-HARTZE ALORRETAN GARATU
BEHARREKO JARDUEREN AHOLOKULARITZA ETA ELKARLAN
ZERBITZUA KONTRATATZEA.** Zerbitzuen esleipena.

Ezagutzera eman da 2015eko azaroaren 19ko Kontratazio-mahaiaren proposamena:

““AURREKARIAK

2015eko irailaren 24an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen berdintasun eta parte-hartze alorretan garatu beharreko jardueren aholkularitza eta elkarlan zerbitzua irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

Iragarkia, GAOean argitaratu zen 2015eko irailaren 30ean, proposamenak aurkezteko epea 2015eko urriaren 15ean amaitzen zelarik.

2015eko urriaren 9an MARIBI LOPEZ PEREZ andreak, BIDERTU GESTORIA SOCIAL, S.L.ren ordeztuz, baldintza pleguarekiko eta zehazki kontratua exekutatu behar dutenei eskatzen zaien titulazioarekiko errekurtsua aurkeztu zuen.

Proposamenak aurkezteko epean hiru proposamen aurkeztu ziren:

- 1.- BIDERTU, GESTORIA SOCIAL, S.L. (2015-10-15, postaz).
- 2.- VIDA Y LEGADO, S.L. (2015-10-15, postaz).
- 3.- ELIXABETE MANTEROLA TELLERIA (2015-10-13, fasez).

2015eko urriaren 29an Gobernu Batzordeak erabaki zuen errekurtsua ez onartzea eta konkurrentzia bermatze arren proposamenak aurkezteko epea zazpi egunez luzatzea.

Erabaki hori, GAOean argitaratu zen 2015eko azaroaren 5ean eta horren ordeztuz proposamenak aurkezteko epea 2015eko azaroaren 12an amaitu zen, baina azken epe honetan ez da beste proposamenik aurkeztu.

Lehenengo kartazaleko dokumentazioa aztertu ondoren, ondorengoa esan daiteke:

BIDERTU, GESTORIA SOCIAL, S.L.

- Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda aurkezten da, baina ez hori kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
- Ez du esaten zeintzuk izango diren kontratua exekutatzen arduradunek, baina pertsonalaren titulazioen artean, inork ez du psikologian edo psikopedagogian titulurik. Beraz, ez dute pleguetako baldintzetako bat betetzen.

VIDA Y LEGADO, S.L.

Ez du esaten zeintzuk izango diren kontratua exekutatzen arduradunek, baina pertsona batek bakarrik du psikologian edo psikopedagogian titulua. Gertatzen dena da, 65 orduko kreditua duen masterra

aurkezten duela, baina administrazioan eta enpresan espezializatua eta eskatzen dena da, administrazioan eta hezkuntzan espezializatua izatea. Beraz, ez dute pleguetako baldintzetako bat betetzen.

ELIXABETE MANTEROLA TELLERIA

Eskatutakoa betetzen du. Beraz, B kartazala ireki daiteke.

2015eko azaroaren 17an, 12,00etan ekintza publikoan ireki da ELIXABETE MANTEROLA TELLERIAk aurkeztutako proposamena eta egiaztatu da, ondorengo dokumentuak aurkeztu ditu:

- 1.- Proposamen teknikoa eta lan egitasmoa.
- 2.- Eranskina, berdintasun arloan diagnostikoak egiteko landutako materiala.
- 3.- Formazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, puntuazio hau ematen da:

Jardueren Memoria: egungo egoeraren berri zehatza deskribatu du. Helburu orokorrak eta zehatzak lortzeko egitasmo ugari eta berritzaileak aurkeztu ditu.

Udala barnetik eta kanpotik (herritarrak) nola landu eta eskola eta kirola (elkarteak, kirolariak eta nerabeak) komunitateekin keta baserritar emakumeekin esku-hartze zehatzak kontuan hartzen dituen plana diseinatu du.

Baina, beste esparru batzuk lantzeko daudenez, erabaki da atal honetan: 35 puntu ematea.

Hobekuntzak: Diagnostiko zehatza eta zorrotza egiteko sortutako material berria eta Udal honetarako egokitua aurkeztu du. Aurkeztutakoa, berdintasun, hezkuntza eta parte-hartze arloei dagokionez, erabaki da atal honetan: 10 puntu ematea.

Formakuntza zehatza: pleguan baloratzen den guztian formazioa izana kreditatu du. Beraz, 30 puntu ematen zaio.

2015eko azaroaren 19an, 9,00etan ekintza publikoan ELIXABETE MANTEROLA TELLERIAk aurkeztutako proposamen ekonomikoari buruzko C kartazala ireki da eta emaitza ondorengoa izan da:

Urteko prezioa, 40.500,00 € gehi BEZ.

Baldintza pleguko formula aplikatu ondoren, lortutako puntuazioa 20 puntuako da.

	Proposamen ekonomikoa (20 puntu)	Jardueren Memoria (50 puntu)	Formakuntza zehatza (30 puntu)	GUZTIRA
ELIXABETE MANTEROLA TELLERIA	20p.	45p.	30p.	95p.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahaiak kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Berdintasun eta parte-hartze alorretan garatu beharreko jardueren aholkularitza eta elkarlan zerbitzua ematea, ELIXABETE MANTEROLA TELLERIA andreaki esleitzea, **40.500,00 € gehi BEZ urteko prezioan**, baldintza plegu administratibo eta teknikoen eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera. Eskaintza honetan, hobekuntza hauek aurreikusten dira:

- Irakasleen beharren diagnosia berdintasun arloan.
- Ikasleen diagnosia berdintasun arloan.
- Berdintasun arloan, Beasaingo emakume eta gizonezkoen beharren diagnosia.

Bigarren. Kontratuaren iraupena lau urtetakoa izango da, hura sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta luzaezina izango da.

Zerbitzua goizez eta arratsaldean emango da. Exekutatzeko estimatu den urteko dedikazioa, 1592 ordukoa da. Dena dela lanaldi hau beharren arabera moldatuko da.

Hirugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar egun baliodun epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotearen agiria.
- 1.620,00 €ko behin betiko fidantza.
- Lizitatuak proposatutako eta Kontratazio Organoak onartutako hobekuntzak betetzeko egiaztatutako agiriak.”

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ-PNV)
Aurka: 0
Abstentzioak: 2 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondoriozz, gehiengo absolutuarekin onartu da.

3.- INGURUNE IREKIKO HEZIKETA PROGRAMA ETA ESKU-HARTZE FAMILIARRAREN PROGRAMAREKIN JARRAITZEA. Kontratua luzatzea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da, 2015-11-2an Gizarte Ongizate Batzordeak egindako proposamenaren arabera:

“**Lehenik**. 2015-10-24tik kontatzen hasita beste urte betez, Beasaingo udalerrian arrisku egoeren dauden gazte eta adingabekoen kaleko hezitzaileen esku-hartze programa.eta Beasaingo udalerrian arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzat esku-hartze familiarraren programa betetzeko LORRATZ GIZA ELKARTEArekin sinatuta dagoen kontratua luzatzea. Kontratua, 2016-10-24an amaituko da.

Bigarren, 2015-2016rako prezioak ondorengoak izango dira:

1.- Ingurune irekiko programa: 95.733,07€ urtekoa.

2.- Esku-hartze familiarraren programa:

- Ikerketa eta proiektua egiteko ordua: 65,65€.

- Bakarkako psikoterapia ordua: 65,65€

- Terapeuta bakarrarekin egindako familia psikoterapia saioa: 87,53€.

- Bi terapeutekin egindako familia-psikoterapia saioa: 109,41€.

- Familia hezitzailearen ordua: 29,54€.”

Hirugarren. Baldintza pleguak adierazten du kontratuaren prezioa, Gipuzkoako Esku Hartze Sozialari buruzko Hitzarmen Kolektiboaren arabera eguneratuko dela. Hitzarmen hori 2014. urte arte indarrean egon zenez, 2014-2015 epealdiko kontratuaren prezioak mantendu egiten dira. Ekitaldi honetan edo hurrengoan hitzarmen berria onartu ezker, kontratuaren prezioak bertan xedatutakoaren arabera eguneratuko dira.”

4.- EUSKERAKO KUDEAKETA PLANA: helburu linguistikoak.

Hizkuntza Politika batzordeak 2015eko azaroaren 16an egindako proposamenaren arabera, aho batez erabaki da, Udaleko sailek beren kudeaketa planetan jasotzeko hizkuntza helburuak, hauek izatea:

1. Herritarrei, hala eskatzen dutenetan, euskaraz soilik erantzungo zaie eta gainerakoei euskaraz eta gaztelaniaz. Horretarako aldez aurretik harremana zein hizkuntzatan nahi duten galdetuko zaie.
2. Administrazio eta erakundeekiko harremana euskarazkoa edo elebietakoa izango da. EAEko administrazioarekiko harremanetan euskarazko komunikazio kopurua hazi.
3. Herriko elkarteetan euskararen erabilera indartzea eta erabileraren diagnostikoa egitea.
4. Azpikontratatuak enpresei hizkuntzen erabileraren jarraipena egitea kontratuzain aplikazioaren bidez.
5. Hornitzaileekiko harremanetan euskararen portzentajea igotzea.
6. 18 urtez beherakoentzat antolatzen diren ekintzak euskara hutsezkoa izango da. Gainerako adin tarteetan edo publiko orokorarentzat diren ekintzetan aztertu egingo da, eta horretarako herriko datu soziolinguistikoak izango dira oinarri.
7. Udal zerbitzu eta ekipamenduetako erabiltzaileen hizkuntza jasoko da datu baseetan.
8. Herritarren Euskarazko sorkuntza bultzatuko da adierazpide desberdinetan.

5.- ASEGURUEN KONTRATUA. Kontratu administratiboa bertan behera uztea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da, Antolakuntza batzordearen 2015-11-17ko proposamenaren arabera:

“**Lehenik**. Beasaingo Udalak eta bere organismo autonomoak izan dezaketen arriskuen estaldurarako, Beasaingo udalaren eta SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ren artean 2015-02-27an sinatutako **luzapen-kontratua bertan behera uzteko prozesuari hasiera ematea**. Izan ere, Aseguru Konpainiak ez ditu errespetatu 2011-03-15ean egindako kontratuan jarritako baldintzak eta luzapen-kontratua hasierakoarekiko baldintzak aldatu gabe sinatu zen aipatutako datan. Aseguru etxeak higiezin ondasunen balorazioa egin ondoren, ekitaldi honetan izandako bi ezbeharretan ondarezko erantzukizun polizian, infraseguro-figura aplikatu du.

Bigarren. Erabaki honen berri, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri ematea, jasotzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarren. Udal ondasunen balorazioa egitea kontratatzea.

Laugarren. Balorazio hori ezagutu ondoren, lizitazio berri bat egitea baldintza plegu berriak prestatuz.”

6.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.